

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZALDUONDOKO UDALA

#### **Behin betiko onartzea zerga ordenantza, zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak eta prezio publikoak arautzen dituen**

Nola eta ez den erreklamaziorik aurkeztu zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen zerga ordenantza ezartzeko erabakiaren aurka hura jendaurrean edukitzeko erregelamenduzko epean zehar, behin betiko onartuta geratzen da, eta osorik argitaratzen da ordenantzaren testu osoa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) 70.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako:

#### **Zerga ordenantza, zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen**

##### I- Xedapen orokorrak

#### **1. artikulua**

Zalduondoko Udalak, bat etorrit Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 20. eta 25. artikuluetan ezarritakoarekin, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 epaiarekin eta Estatu eta toki tasen lege araubidea aldatzeko eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeko Legean ezarritakoarekin (25/1998 Legea, uztailaren 13koa), tasak ezartzen eta galdatzen ditu, ordenantza honetan ezarritako eran, eranskinean jasotzen diren zerbitzuak emateagatik eta jarduerak gauzatzegatik.

#### **2. artikulua**

Ordenantza hau Zalduondoko udalerrri osoan aplikatzen da.

##### II. Zerga egitatea

3. artikulua. Zerga egitatea da udal administrazioak udal eskumeneko zerbitzuren bat eman edo administrazio jardueraren bat egitea, hala eskatu diotelako edo partikularren ekintzek edo omisioek zeharka eragin dutelako, subjektu pasiboari bereziki eragiten diona edo onura dakarkiona.

##### III. Subjektu pasiboa

#### **4. artikulua**

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen dituen entitateak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta haien onuraz edo eraginaz gozaten badute.

2- Hauek izango dira zergadunaren ordezkari subjektu pasiboak:

a) Zerbitzuek edo jarduerak etxebizitzaren edo lokalen erabiltzaileei onura ekartzen badiete edo eragiten badiete, zerbitzu edo jarduerak horien egiteagatik ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Jabe horiek, hala badagokio, dagozkien onuradunei ordainaraziko di-zkiete kuotak.

b) Arriskua aseguratzen duten entitate edo sozietateak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri, eraikuntza eta eraisketen prebentzioa, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.

c) Hirigintza baimenen tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

#### **5. artikulua. Tasak ordaindu beharko dituzte:**

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatu ez badituzte, baina haiek egindako edo ez egindako zerbaitengatik burutu behar izan badira zerbitzu edo jarduera horiek, egindakoa edo ez egindakoa egotzi ahal zaienek.

#### **6. artikulua**

Subjektu pasiboarena ez ezik, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonena ere izango da ordenantza honetatik ondorioztatzen diren zerga zorren erantzukizuna.

#### IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

#### **7. artikulua**

Salbuespenak, murrizketak, hobariak eta bestelako zerga onurak ematea aplikatu beharreko xedapen orokorren mende egongo da beti.

#### V. Zerga oinarria

#### **8. artikulua**

Zerga oinarria izango da zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza, dagokion tarifaren baldintzen arabera (eranskinean zehazten dira).

#### VI. Kuota

#### **9. artikulua**

Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari tarifa bat aplikatuz ateratzen dena, edo ezarritako kopuru finko bat, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

#### VII. Sortzapena eta zergaldia

#### **10. artikulua**

Zerbitzua edo jarduera hastearekin batera sortzen da tasa; nolana ere, zerbitzuari edo jarduerari ekin aurretik zenbateko osoa edo zati bat jartzeko eska daiteke.

#### VIII. Likidazioa eta diru sarrera

#### **11. artikulua**

Zalduondoko Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako kuota dirutan ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskineko tarifetan jasota dauden arauen arabera.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzea ere eska daiteke.

#### IX. Tasen kudeaketa

#### **12. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak xedatutakoa aplikatuko da ordenantza honek araututako zergen likidazioari, bilketari eta ikuskatzeari dagokion guztian, bai eta zergen arau hausteetan eta haien zehapenak determinatzeari dagokion guztian ere.

## X. Azken xedapena

Ordenantza hau, beraz, bere testu osoa ALHAOn argitaratzen den unetik aurrera egongo da indarrean, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2. artikuluan ezarritako epea igaro ostean (7/1985 Legea, apirilaren 2koa; lege horretako 70.2 artikulua igortzen du artikulua horretara). <0}

## Eranskina

1. epigrafea - Zaborra biltzeko zerbitzu publikoa emateagatik ordaindu beharreko tasa

## Aplikazio arauak

1- Tasaren zerga egitatea da zaborra eta hiri hondakin solidoak nahitaez biltzeko zerbitzua eskaintzea. Zerbitzua leku hauetan emango da: etxebizitzetan, ostatuetan eta industria, merkataritza, lanbide, arte edo zerbitzu jarduerak egiten diren lokal edo establezimenduetan.

2. Dena delako zerbitzu edo jardueraren kostu erreala edo aurreikusitakoa da zerga oinarria, kontuan hartuta zeintzuk diren zerbitzuaren edo jardueraren kostu osoa osatzen duten gastu zuzeneko edo zeharkakoak, eta, orobat, zer finantza gastu egon den, higiezinetatik zer amortizatu den, eta zer gastu orokor egin den ere, eta baita ere dena delako zerbitzu edo jarduera horren motak eta ezaugarriak nahiz ordaintzeko betebeharra duten subjektuen ahalmen ekonomikoa.

3. Zerga kuota izango da diru zenbateko finko bat, lokal unitate bakoitzeko, zeina higiezin izatearen eta zertarakoaren arabera finkatuko baita.

4. Zerbitzua ematen hasten den unetik bertatik sortzen da tasa eta, zerbitzua nahitaez jaso behar denez gero, zerbitzua ematen hasita dagoela joko da tasaren peko zergadunek erabiltzen dituzten etxebizitzak edo lokalak dauden leku edo kaleetan ezarrita eta abiarazita dagoenean hura.

5- Kuotak urtean-urtean kobratuko dira, zergadunen erroldatik eratorritako ordainagiri bidez.

6- Tarifen taula

Tarifak (urtekoak)

– Abeltzaintza etxebizitza eta ustiategiak: 55,09 euro.

– Ostalaritzako establezimenduak eta landa turismoko establezimenduak: 81,14 euro.

7. Hobariak.

Tasaren kuotan hobariak izateko eskubidea izango dute honako taula honetan zerrendatzen diren baldintzak betetzen dituzten zergadunek, hartan agertzen diren ehunekoaren arabera:

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK	ERRENTA URTEKO 17.000 EURO BAINO TXIKIAGOA
1 eta 3 kide artean	ehuneko 35
4 eta 6 kide artean	ehuneko 50
7 baino gehiago	Ehuneko 75

Familia unitatea dela adituko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan definitzen dena (33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa).

Aurrekoa gorabehera, baldin dagokion etxebizitza horretan, zergaren sortzapen datan, familia unitatea eratzen duten pertsonak baino pertsona gehiago badaude erroldatuta, familia unitateko kideztat hartuko dira etxebizitzan erroldatutako pertsona guztiak eta, hortaz, haien diru sarrera guztiak zenbatuko dira.

Hobaria izateko betekizun eta izapide formalak:

- Hobariaren gai den higiezina identifikatzen duen eskaera.
- Zerga hobaria jaso den urtearen aurreko PFEZaren fotokopia konpultsatua, familia unitateko kide guztiena, edo aitortpena egin beharrik eza egiaztatzen duen agiria.
- Sei hilabete izango dira eskaerak aurkezteko, hain zuzen ere otsailetik uztaiera urtero, eta ordaindutakoaren zati baten itzulketa gisa izapidetuko da.

2. epigrafea - Estolderia zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa

TARIFAK	120M <sup>3</sup> ARTE	121 M <sup>3</sup> T IK 160 M <sup>3</sup> RA	161 M <sup>3</sup> TIK 200 M <sup>3</sup> RA	201 M <sup>3</sup> TIK 300 M <sup>3</sup> RA	300 M <sup>3</sup> BAINO GEHIAGO
Etxebizitzak	4,25 euro	4,70 euro	5,20 euro	5,60 euro	6,00 euro
Abeltzaintzako ustiategiak eta ostalaritzako establezimenduak eta landa turismoko establezimenduak	4,25 euro	4,70 euro	5,20 euro	5,60 euro	6,00 euro

Aplikazio arauak

1- Hauek dira tasaren zerga egitatea:

a) Udalaren jarduera tekniko eta administratiboa, zeinaren bidez estolderia sarera egin beharreko hartuneak baimentzeko ezinbesteko baldintzak betetzen ote diren egiaztatzen den.

b) Udal estolderia erabiltzea, komuneko urak, euri urak, ur beltzak eta hondakin urak husteko, udalerrian dauden finken mesedetan.

2- Ez dute tasa ordaindu beharrik izango hondatutako finkek, aurri egoeran deklaraturakoek edo orube edo lurzoru direnek.

3- Estolderia eta arazketa zerbitzuak emateagatik eskatu beharreko zerga kuota determinatuko da finkan erabilitako ur kopuruaren arabera, metro kubotan neurtua.

4. Tasa sortzen da eta zerga ordaintzeko betebeharra sortzen da zerga egitatea daragien jarduera hastean, eta jarduera hasten dela adituko da udal estolderia sarerako hartunea egiten den unean bertan. <0}

5. Tasa sortzen da eta zerga ordaintzeko betebeharra sortzen da zerga egitatea den udal jarduera hasitakoan, eta jarduera hori hasten dela joko da:

a) Hartunerako baimenaren eskaera egokia ematen den egunean, baldin subjektu pasiboak berariaz aurkezten badu.

b) Hartunea udal estolderia sarera egiten den unean bertan. Hartunearen baimena lortu ez sortzen da tasa mota hori ordaindu beharra; hala ere, baimen hori abian jartzeko, administrazio espedientearen hasiera izapidetu daiteke.

Iraizkinak, euri urak, ur beltzak eta hondakin urak husteko zerbitzuak, bai eta haiek araztekoak ere, derrigorrezkoak dira udalerriko finka guztietarako, baldin eta estolderia dagoen kaleetara, plazetara edo bide publikoetara ematen duten fatxadak badauzkate, betiere sarearen eta finkaren arteko distantzia 200 metro baino gutxiago izanda. Nahiz eta interesdunek ez eduki hartunerik sarera, ordaindu egin beharko dute tasa.

6. Zergadunaren ordezeko diren subjektu pasiboek altaren eta bajaren aitortpenak egin beharko dituzte tasaren subjektu pasiboen erroldan, finkaren titularitatea aldatzen den egunetik hurrengo hilaren azken egunera bitartean. Altaren eta bajaren aitortpenak egiteko epea amaitu ondoren egingo den lehenengo likidazioaren egunetik aurrera izango dute indarra esandako

aitorpenek. Erroldan lehenengo aldiz sartzea ofizioz egingo da, sarerako hartunearen baimena eman ondoren.

Tasa honengatik eskatutako kuotak likidatu eta bilduko dira edateko urearen horniduraren eta kontsumoaren ordainagirien epe eta aldi berberetan.

Hartune baimenaren kasuan, zergadunak dagokion eskaera aurkeztuko du eta Udalaren zerga zerbitzuek, behin baimena emandakoan, dagokion likidazioa egingo dute, bai eta jakinarazi ere, zuzen-zuzenean udalaren diru-kutxetan ordaintzeko.

#### 7. Hobariak:

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK	ERRENTA URTEKO 17.000 EURO BAINO TXIKIAGOA
1 eta 3 kide artean	ehuneko 35
4 eta 6 kide artean	ehuneko 50
7 baino gehiago	Ehuneko 75

Familia unitatea dela adituko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan definitzen dena (33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa).

Aurrekoa gorabehera, dagokion etxebizitza horretan zergaren sortzapen datan familia unitatea eratzen duten pertsonak baino pertsona gehiago badaude erroldatuta, familia unitateko kide zat hartuko dira etxebizitzan erroldatutako pertsona guztiak eta, hortaz, haien diru sarrera guztiak zenbatuko dira.

Hobariak etxebizitzetara baizik ez zaizkie aplikatuko.

Hobaria izateko betekizun eta izapide formalak:

- Hobariaren gai den higieztina identifikatzen duen eskaera.
- Zerga hobaria jaso den urtearen aurreko PFEZaren fotokopia konpultsatua, familia unitateko kide guztiena, edo aitortpena egin beharrik eza egiaztatzen duen agiria.
- Sei hilabete izango dira eskaerak aurkezteko, hain zuzen ere otsailetik uztaileira urtero, eta ordaindutakoaren zati baten itzulketa gisa izapidetuko da.

#### 3. epigrafea: kirol jardueren tasa

Kirol jarduerak:

- Astean egun: 1 30 euro/hiruhilekoa
- Astean egun: 2 40 euro/hiruhilekoa
- Astean 3 egun: 60 euro/hiruhilekoa

Udalaren kirol jardueren prezioak determinatzeko irizpideak

1. Hirugarren adina deritzoneko herritarrentzako jardueretan (alegia, erretiratu eta pentsiodunentzako jardueretan), eta ikasleentzako eta langabetuentzako jardueretan, ehuneko 50eko murrizketa aplikatuko zaie.

2- Kirol ikastaroak emateko kontratatutako enpresetako langileek emandako jarduera berriengatik, dagoeneko badiren antzeko ikastaroengatik kobratzen den prezio bera kobratuko da, betiere haien praktika egun kopuru berbera badute.

3- Bigarren puntukoez besteko jardueretarako kontratatutako beste ikastaro batzuetan, jarduera horiek emateak dakarren kostuaren araberrako prezioa kobratuko da.

4. Kirol jarduerak egiteko talde bat sortzean, hura eratuko duten pertsonen erdiak gutxienez Zalduekiko udalerrian erroldatuak izan behar dute edo udalerrri horretan izan behar dute bizilekua.

4. epigrafea. Udal hilerriko zerbitzuaren tasa.

A) Udal hilerrian ez da onartuko hilobi edo panteoitarako lursailik saltzea, ez eta horma-hilobiak saltzea ere.

B) Hobitik ateratzearen eta hobiratzeren tasak:

a) Panteoia, hilobia edo horma-hilobia bada: 20 euro.

b) Errautsak badira (panteoian, hilobian edo horma-hilobian): 5 euro.

c) Zinkezko kutxa bakoitzagatik: 30 euro.

Aplikazio arauak:

1- Subjektu pasiboek, beraz, behar dituzten zerbitzuak eskatuko dituzte.

2. Zergapeko subjektu pasiboak dira baimena edo zerbitzua eskatzen dutenak, eta, dagokionean, emandako baimenaren titularrak. Subjektu pasiboaren zerga betebeharrengatik era solidarioan erantzungo dute Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 38. eta 39. artikuluetan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoek.

3. Zergapeko zerbitzuak jasotzean sortzen da tasa eta zerga ordaindu beharra. Hau da, zerbitzuok eskatzen direnean sortuko da ordaintzeko beharra.

4. Zerbitzu bakoitza banan-banan eta autonomoki ordainduko da, eta, behin zerbitzua eskainita, jakinarazi egingo da, udalaren diru-kutxan zuzenean egiteko ordainketa. Diru sarrera hori Dirubilketako Arautegi Orokorrean adierazitako moduan eta epeetan egingo da.

5. Hilobiratu behar deneko lurperatzea eta lurpetik ateratzea eskatzailearen kontura izango da.

6. Mausoleoak eta panteoiak eraikitzeke baimen eskaerarekin batera, dagokion proiektua eta memoria aurkeztuko dira, eta adituek baimenduta aurkeztu beharko dituzte.

7. Hilerria zaintze, mantentze eta garbitze zerbitzuengatik behin betiko hilobi eskubideen titularrei ordainaraziko zaie kuota.

8. Honako zerbitzuak geratuko dira salbuetsita:

a) Ongintza etxeetan bizi diren pertsonen ehorzketak, baldin eta gorpua etxe horiek eramaten badute hilerria, eta hildakoen senideek hiletarik ordaintzen ez badute.

b) Arras pobreen gorpuen ehorzketak.

c) Agintari judizialen aginduz hilobi komunean egiten diren ehorzketak.

9-Horma-hilobiaren mantentze lanak esleipendunaren kontura izango dira.

10-Hilobi edo horma-hilobiak edozein arrazoi dela-eta hutsik edo libre geratzen direnean, udalaren esku geratuko dira.

11. Hilobiratzea egin denetik hasi eta baimenaren epea amaitu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan, adituko da baimenak indarra galdu duela, eta udal administrazioak bere esku izango du agintzea gorpuzkiak guztien hobira edo hezurtegiara eramane daitezela, –kontuan harturik zein egoeretan dauden–, eta ondoren utz daitezela gurutzeetan, hilarrietan eta dauden gainerako ikurretan haien zat adierazitako lekuetan.

12-Hilobia udal hilerrietik kanpoko leku batera aldatzearen hilobitik ateratzea edo hilobiratzea eskatzen dutenek ezinbestean eskatu beharko diete baimena osasun agintariei.

## 5. epigrafea- Udal lokalak aldi baterako lagatzearen tasa

### Aplikazio arauak

#### 1.- Gaia

Ordenantza honen xedea da:

a) Behar zehatz edo iragankor batzuk asetzeko xedez elkarte, partikular eta erakundeek udalaren lokalak erabiltzeko baimena eskatzen dutenean, lokal horiek aldi baterako lagatzeko jarraitu behar den prozedura orokorra eta irizpideak ezartzea eta erabilera hori arautzea.

b) Materiala eskatzen duten elkarte, partikular eta erakundeei material hori maileguan emateko prozedura orokorra eta irizpideak ezartzea eta mailegu hori arautzea.

c) Horrez gain, udalaren materiala maileguan hartzeagatik eta lokalak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa ezarri eta arautzea.

Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira elkarte, enpresa edo partikularrei beren jarduerak modu iraunkorrean gauzatzeko egiten zaizkien toki edo lokalen lagapenak edo beste arautegi bereziren bat daukaten eraikin edo ekipamenduen lagapenak. Halaber, hauteskunde arautegia betez, ordenantza honetatik kanpo geratzen da alderdi politikoen lokalak erabiltzea.

#### 2. artikulua. Lokalak zein erabileratarako lagako diren.

1. Zalduekiko Udalak baimena eman dezake bere jabetzako lokalak edo eskubideren baten pean dituenak aldi baterako lagata erabiltzeko, baldin eta jarduera jakin batzuk aldi baterako gauzatzeko behar badira. Jarduera horiek honako mota hauetakoak izan behar dira:

a) Interes sozialeko jarduerak, irabazteko xederik gabekoak eta ordain ekonomikorik gabe herritar guztientzako direnak, esate baterako hitzaldiak, mintzaldiak, erakusketak, entzunaldi publikoak, antzezpenak eta antzeko kultur edo dibulgazio jarduerak.

b) Elkarrekin berezko dituzten jarduerak edo alderdi politiko eta sindikatuen biltzeko eskubidearen ondoriozkoak direnak.

c) Ordain ekonomikoa izan arren, herritarrentzat izaera edo erabilera sozialeko jardueratzat jotzen diren jarduerak izatea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, lantegiak eta antzeko jarduerak), betiere noizean behin egiten direnean eta iraupen mugatukoak direnean.

Espresuki debekatuta dago pertsonen berdintasunaren printzipioaren kontrako jarduerak gauzatea, eta ondorioz, debekatuta egongo da egintza oro indarkeriazkoa bada, edo duintasun pertsonalaren kontrakoa bada, edo arraza, sexu, erlijio, iritzi, sexu-joera edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozialen ondorioz pertsonak edo pertsona taldeak bazterten baditu.

#### 3. Eskumena

Espazioak erabiltzeko baimena emateko eskumena alkate-presidentearena da.

#### 4. Laga daitezkeen lokal eta materialak.

Zalduekiko Udalaren jabetzako lokalak edo haren eskubideren baten peko lokalak, aldi baterako laga daitezkeenak, udaletxeko lokal guztiak dira, udal teknikarien aretoak izan ezik.

Eskatzaileak, halaber, udalaren materialak ere baliatu ahal izango ditu (aulkiak, mahaiak, megafonia, pantaila, proiektoreak eta abar), betiere behar besteko aurretiaz eskatzen baditu eta ez badaude beste ekitaldi eta/edo ospakizun baterako izendatuak. Material hori udal langileek kokatuko dute, eskatzaileak ere –edo hala balegokio, hark izendatutako pertsonak– zeregin horretan parte hartuta.

Lokal bat erabiltzeko baimena emateko, kontuan hartuko da ea hura erabilgarri dagoen, zeren eta ez baita baimenik emango erabilgarri ez badago udalak berak edo haren mendeko zerbitzuek erabili beharra daukatelako.

#### 5- Eskatera:

Eskatera, berriz, udalak emandako eredu normalizatuaren arabera egin beharko da. Nolanahi ere, honako hauek eduki beharko ditu:

a) Udal instalazioetan ekitaldiak egiteko baimena edo haiek erabiltzeko baimena eskatzen duenaren izena, deiturak, bizilekua eta identifikazioa.

b) Ekitaldia non eta noiz egingo den (lekua, eguna eta ordua). Eskatzaileak hiru aukera adierazi ahal izango ditu.

c) Ebazpena adierazitako lehentasun hurrenkeraren arabera izango da, eta, ezezkoa emanaz gero, arrazoitu egin beharko da, eta lehendik baimendutako ekitaldi bat izatea ez da beste arrazoirik onartuko .

d) Zenbat jotzen den iraungo duela ekitaldiak.

e) Ekitaldiaren deskripzio laburra, eta, hala balegokio, udalaren zein material eskatzen den.

f) Ekitaldirako eskatzen edo ekartzen diren zerbitzu osagarrien deskripzioa (soinu ekipoa, proiektzioak eta abar).

g) Eskatzailearen sinadura, eta/edo borondatea egiazkoa duela egiaztatzea beste moduren batean.

Eskaeran datu horiek eman ezean, eskatzaileari eskatuko zaio beranduenez ere eskaera egin eta bi egun baliouduneko epean, aurkez ditzala. Errekerimendu horretan, adierazi egin beharko da eskatutako datuak aurkezteko gehienezko epea. Eskaerak ez baditu jasotzen aurreko para-grafoan zehazten diren betekizunak, eskaeran atzera egin duela joko da.

Bilerak egiteko baimena emateko prozedura arintasun eta eraginkortasun printzipioen pean egongo da.

#### 6. Tasak

Zalduondoko elkarte, herrikide eta biztanleentzat, irabazteko xederik gabe badihardute: 0 euro.

Irabazteko xedearrekin diharduten beste pertsona eta erakunde pribatu batzuk (enpresak, sindikatuak, alderdi politikoak):

- Ekitaldi aretoa. 10 euro orduko
- Erabilera anitzeko aretoa: 10 euro orduko
- Udalbatza: 10 euro orduko

#### 7. Instrukzioa eta ebazpena

Alkate-presidenteak ebatziko du dekretu bidez, eta berak ezarriko du ekitaldia egiteko lekua, eguna eta ordua, eskaeran ezarritako lehentasun hurrenkeraren arabera.

Eskareri ezezkoa ematekotan, arrazoitu egin beharko da.

Leku, egun eta ordu bererako hainbat eskaera badaude, sarrera erregistroko aurkezpen data eta zenbakiaren arabera ebatziko da.

#### 8- Xedapen gehigarria

Eskatzaileek, pertsona fisikoak badira, eta ordezkariak, kolektiboen eskaerak bermatzen badituzte, erantzukizun zuzen-zuzena izango dute, lagatako lekuetan hirugarrenei kalteak edo



makurrak eragiten bazaizkie erabiltzaileen edo kolektiboetako kideen kausaz, dela ekitez edo omisioz, doluz edo zabarkeriaz, eta udala bera ere hirugarrena dela joko da.

Zalduondoko Udaleko alkatetza-presidentziari baimena ematen zaio ordenantza hau aplikatzeko beharrezkoak diren guztietarako.

Ordenantza honetan jaso gabekoetan, udal arduradunen aginduak bete beharko dira.

Zalduondo, 2015eko abenduaren 9a

*Alkatea*

*GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE*